

2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 40 NEKAZARITZA

Programa: 46 NEKAZARITZAKO AZPIEGITURAK

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

Departamento: 40 AGRICULTURA

Programa: 46 INFRAESTRUCTURAS
AGRARIAS

SAILAREN MEMORIA

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

2016an Nekazaritza Sailak, programa honen barruan, ahalegina egin du, alde batetik, hasita zeuden eta gauzatzeko arduradun bakarra Arabako Foru Aldundia ez duten proiektuetako ureztatzeak modernizatu eta hobetzeko lanen jarraipena finantzatzen laguntzeko (Arabako Haranetako proiektua esaterako), eta beste alde batetik, dauden sail ureztatuak hobetzeko ureztatzaile komunitateei laguntzak emateko.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE MAILA

1º.- Ureztatzeak modernizatu eta hobetzea

- Arabako eskualdeen ureztatzearekin jarraitu da, eta 2016an honako kopuru hauek ordaindu dira:
- V. Zona proiektua idaztea: 26.550 €
- VII. Zona proiektua idaztea: 2.070,45 €
- IV. Zonako ureztatze sareko obrak: 2.144.668,37 €
- V. Zonako ureztatze sareko obrak: 203.347,99 €
- Laguntza teknikoa, segurtasuna eta osasuna barne: 82.187,94 €
- Desjabetzeak: 95.090,66 €

2º.- Existitzen diren ureztatzeak hobetzea:

- Uztailearen 12ko 51/2016 Foru Dekretuaren bitartez, existitzen ziren ureztatzeak modernizatzeko laguntzen deialdia onartu zen.

Deialdi horretan ureztatzaileen 25 komunitate aurkeztu ziren, eta 32 inbertsio egiteko laguntza eskatu zuten. 25 komunitateak lagundu dira; diruz lagun daitekeen aurrekontua 1.163.298,00 eurokoa da, eta laguntzak guztira 896.525,77 euroko zenbatekoan onartu dira, horietatik 464.405,94 euro 2016ko urtekoari dagozkio eta 432.119,83

I. MEMORIA

Durante el año 2016 el Departamento de Agricultura, dentro de este programa, ha dedicado sus esfuerzos por un lado a colaborar en la financiación para la continuación de las obras de modernización y mejora de regadío de aquéllos proyectos que estaban iniciados y cuya ejecución no depende exclusivamente de la Diputación Foral de Alava, como es el Proyecto de Valles Alaveses y por otro a la concesión de ayudas a las Comunidades de Regantes para mejora de regadíos ya existentes.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

1º.- Modernización y Mejora de Regadíos.

- Se ha continuado con el Regadío de Valles Alaveses, habiéndose abonado en 2016 las siguientes cantidades:
- Redacción de proyecto Zona V: 26.550 €
- Redacción de proyecto Zona VII: 2.070,45 €
- Obras de red de riego Zona IV: 2.144.668,37 €
- Obras de red de riego en Zona V: 203.347,99 €
- Asistencia técnica incluido seguridad y salud: 82.187,94 €
- Expropiaciones: 95.090,66 €

2º.- Mejora de los riegos existentes:

- Mediante Decreto Foral 51/2016 de 12 de Julio se aprobó la convocatoria de ayudas a la modernización de regadíos existentes.

A dicha convocatoria se han presentado 25 Comunidades de Regantes que han solicitado ayuda para 32 inversiones. Se ha concedido ayuda a las 25 Comunidades, cuyo presupuesto subvencionable asciende a 1.163.298,00€ habiéndose aprobado ayudas por un importe total de 896.525,77€ de los que 464.405,94 € han sido

2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 40 NEKAZARITZA

Programa: 46 NEKAZARITZAKO AZPIEGITURAK

euro, berriz, 2017ko urtekoari. Guztira 458.081,13 euro ordaindu dira.

- Uiarra ibaiaren (Ametzaga-Zalduondo ibaia) emariaren isuraldatzearen jarraipena egin da. Haren kostua 13.000,00 euro izan da.
- Azterlan bat kontratatu da, Rabigel de Peñacerrada udal mugartean baltsa iragazgaizteko soluzioak zehazteko; guztira 16.666,00 euroko zenbatekoan.
- Arabako haranak ureztatzeko Bóveda eta Atiegan instalatutako aforatzaileek hornitutako datuak kontrolatu egin dira eta horien jarraipena egin da, 10.309,20 euroko kostuarekin.
- Ureztatzaileen komunitateetan energia eraginkortasuna sustatu eta aurrezteko azterlan bat egiteko agindua eman da, 15.000,00 euroko kostuarekin.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

Departamento: 40 AGRICULTURA

Programa: 46 INFRAESTRUCTURAS AGRARIAS

con cargo a la anualidad 2016 y 432.119,83€ con cargo a la de 2017, habiéndose abonado un total de 458.081,13€

- Se ha realizado un seguimiento del trasvase de caudal del río UYAR (Río Amézaga-Zalduendo) con un costo de 13.000,00 €
- Se ha contratado un estudio para determinar las soluciones de impermeabilización de la balsa en el término Rabigel de Peñacerrada, Por importe de 16.666,00
- Se ha realizado un seguimiento y control de los datos suministrados por los aforadores instalados en Bóveda y Atiega para el Regadío de Valles Alaveses, con un costo de 10.309,20€
- Se ha encargado la realización de un estudio de ahorro y eficiencia energética en las comunidades de Regantes, con un costo por importe de 15.000,00 e